

## *Irigarritasun-politika*

### HELBURUA

Euskalduna Jauregiaren hobekuntza-politikaren barruan, eta legeria nazionalari, EAEn **irigarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeari** eta hori garatzeko **hiriguneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irigarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen 68/2000 EDri** jarraituz sortutako arau-esparruan, zuzendaritzak lehentasunezko helburutzat jo du Euskalduna Jauregiaren kudeaketa-sistemaren barruan integratzea gure jarduera garatzeko irigarritasun unibertsala kontrolatzeko eta kudeatzeko beharrezko prozedurak. Horren helburua da gure instalazioetan bezeroei eta erabiltzaileei emandako zerbitzuen irigarritasun-baldintzak hobetzea eta desgaitasun motaren bat duten pertsonen zerbitzuak baliatu ahal izatea erosotasun-baldintza eta erabiltzeko duintasun berberekin.

### PRINTZIPIOAK

Helburu hori lortzeko, oinarrizko printzipio hauek ezartzen ditu:

- ❑ Irigarritasunaren arloan aplikatu beharreko legea eta erregelamenduak betetzea.
- ❑ Irigarritasun unibertsalari buruzko UNE 170001 arauan bildutako DALCO eskakizunak aplikatzea, inguruneen irigarritasun-gabeziak ezabatzeke edo gutxitzeko helburuarekin.
- ❑ Instalazio paregabeak ditugu, eta, teknologiari eta langileei dagokienez, gure erakundea egoerak eskatzen duen bezala aritu behar da horiek herritar guztientzat irigarri egiteko, baita gaitasun anitzak dituztenentzat ere.
- ❑ Onena izateko, instalazioez gain, ezinbestekoa da bezeroen beharretara behar bezala egokitzea eta horiekiko malguak izatea.
- ❑ Jauregia mantentzeko eta horren irigarritasuna etengabe hobetzeko baliabideak bideratzea eta, kasu bakoitzean, laguntza tekniko egokiak ematea jauregian antolatutako jarduera eta ekitaldi guztietan irigarritasun unibertsala bermatzeko, larrialdi-egoeren erantzunetan barne.
- ❑ Enpresako kide guztien lankidetzeta eta parte-hartzea irigarritasunaren arloan, maila hierarkiko guztiak partaide izan daitezzen eta irigarritasun-politika jauregiko inguruneetan egindako jarduera eta ekitaldi guztietan egon dadin.
- ❑ Ildo horretatik, gainera, aurrekoa bezain beharrezkoa da Euskalduna Jauregiko azpikontratisten lankidetzeta, baita jauregian gure bezeroentzat jarduerak egiten dituzten kontratena eta bisitariena ere.
- ❑ Irigarritasunaren eta gaitasun anitzeko pertsonen integrazioaren arloan kultura positiboa sortzea.

Zuzendari nagusi gisa, konpromisoa hartzen dut irigarritasunaren arloan kudeaketa-sistema sustatzeko, eta langile eta arduradun guztiei eskatzen diet lankidetzeta kontziente, aktibo eta diziplinatua, Euskalduna Jauregiaren helburuak lortu ahal izateko.

Zuzendari nagusia  
Bilbon, 2018ko ekainaren 15ean